

## **1999KO EKAINAREN 3AN GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hirua

**HILABETEA:** Ekaina

**URTEA:** Mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzia

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko Zazpiak

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Lau (4)

**MAHAIBURUA:** Jon Jauregi Bereziartua

**BILDUA:** Arantza Aseginolaza Azkargorta

Jose Luis Elorza Mujika

Jose Ignacio Insausti Mujika

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

### **1- AURREKO AKTA**

1999ko apirilaren 30eko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako aldaketarik aurkeztu ez delako.

### **2- FAKTURAK**

13.525.556 pta.ko zenbatekoa duen faktura-sorta aztertu da eta aho batez ondorengo erabaki da:

Lehenik.- Aipatutako sortan sartutako faktura bakoitzaren eta guztien gastua onestea.

Bigarren.- Faktura horiek dagozkien hartzekodunei ordaintzeko agindua ematea.

### **3.- OBRA ZIURTAGIRIAK**

a- Gernika pasealekua birmoldatzeari buruzko obren seigarren eta zazpigarren ziurtagiria

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 39.302.416 eta 61.496.482 pezetako Gernika pasealekua birmoldatzeari buruzko obren seigarren eta zazpigarren ziurtagiriak hurrenez hurren.

b.- Oria ibaia bideratzeari buruzko obren lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren ziurtagiriak.

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 333.333, 193.599, 161.333 eta 15.270 pezetako Oria ibaia bideratzeari buruzko obren lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren ziurtagiriak hurrenez hurren.

c.- Eguneko Zentroa egokitzeko buruzko obren bigarren ziurtagiria

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 6.614.123 pezetako Eguneko Zentroa egokitzeko buruzko obren bigarren ziurtagiria.

d.- Matxinbentako frontoia egiteari buruzko obren lehenengo ziurtagiria

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 3.869.513 pezetako Matxinbentako frontoia egiteari buruzko obren lehenengo ziurtagiria.

e.- Kolektorea instalatzeari buruzko obren likidazioa.

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 8.612.055 pezetako Kolektorea instalatzeari buruzko obren likidazioa.

#### **4.- OBRAK KONTRATATZEA**

a.- Hilobiak birmoldatzeari buruzko obrak kontratatzeke baldintza plegua onesteko eta deialdia egiteko proposamena.

Aldez aurretik Hirigintza-batzordearen aldeko txostena izanda, Hilobiak birmoldatzeari buruzko obrak kontratatzeke baldintza plegua onestea eta deialdia egitea proposatu da.

Obrak kontratatzeke, premiazko prozedura erabiliko da arrazoi hauengatik:

- Lanak urriaren bigarren hamabostaldiako bukatuta egon behar dira, santu guztien eguna ospakakizuna dela eta.

- Lanak bukatzeko epea bi hilabetekoa izango da.
- Egin beharreko iharduera guztiak kanpoan egin behar dira.
- Prozedura arrunta erabiliko balitz, obrak uztailaren bukaeran adjudikatuko lirateke eta enpresa gehieneak abuztuan oporrak hartzen dituzte.
- Eguraldiagatik obrak atzeratzen badira, aipatutako datarako obrak bukatu gabe egongo lirateke.

Bildutako partaideek inolako oztoporik azaldu ez dutenez, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

1- , Hilobiak birmoldatzeari buruzko obrak kontratatzea, kontratazio-deialdia enkante bidez eginez.

2- Enkantea arautuko duten baldintza tekniko eta administratiboak onestea.

b.- Espaloiak birmoldatzeari buruzko obrak kontratatzeko baldintza plegua onesteko eta deialdia egiteko proposamena.

Aldez aurretik Hirigintza-batzordearen aldeko txostena izanda, Espaloia birmoldatzeari buruzko obrak kontratatzeko baldintza plegua onestea eta deialdia egitea proposatu da.

Obrak kontratatzeko, premiazko prozedura erabiliko da arrazoi hauengatik:

- Prozedura arrunta erabiliko balitz, obrak uztailaren bukaeran adjudikatuko lirateke eta enpresa gehieneak abuztuan oporrak hartzen dituzte eta hain zuzen ere udara aprobetxatu nahi da obrak egikaritzeko, herrian jende gutxiago dagoelako eta horren ondorioz eragozpenak murriztu egiten direlako.

Bildutako partaideek inolako oztoporik azaldu ez dutenez, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

1- Espaloia birmoldatzeari buruzko obrak kontratatzea, kontratazio-deialdia enkante bidez eginez.

2- Enkantea arautuko duten baldintza tekniko eta administratiboak onestea.

## **5- LIZENTZIA**

Hirigintza batzordearen aldeko txostena izanda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik**. Beasaingo 14 HAn etxebizitzak (15), hotela (26 logelakoa), behebarruak eta garajeak izango dituen eraikinerako hirigintza-lizentzia ematea, ondoren aipatzen diren ezaugarriak betetzeko baldintzapean:

1.- Herriko espaloiaaren sestra zehazten duen  $\pm$  000 kotaraino obrak hasteko, obra egikaritzeko dokumentuak eta derrigorrezkoa den segurtasun- eta osasun-azterlanari dagozkionak ekarri beharko dira.

2. Irekitzeko lizentzia eman aurretik, Hotel-jarduerarentzat erabilpen horretarako eskatzen dituen 13 aparkaleku-plaza jarri beharko dira eta horiek jardueraren zuzkidura moduan azaltzen dituzten dokumentuak ekarri beharko dira.

3. Hotelaren jarduera sektore horri dagokion araudiaren menpe jarriko da baimena lortu eta bere maila aitortua izateko.

**Bigarren**. Ebazpen honen berri interesatuari ematea.”

## **6- PERTSONAL HAUTAKETA**

Ezagutzera eman da, Belen Garmendia langilea euskarako ikastaro batetara joan behar denez, bere ordezkapena egiteko Gizarte Ongizate Batzordeak, gizarte laguntzaile bat kontratatzeko oinarriak prestatu ditu, eta Gobernazio batzordearen aldeko txostena izanda, oinarriak aho batez onartu dira eta ordezkapena martxan jartzeko behar diren pausoak lehen bait lehen egitea erabaki da.

## **7- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu

Eta tratatzeko beste gairik ezean bilera arratsaldeko zortzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.